

Urteak

Joxean Agirre

Maiatza iritsi ahala, urteak egiten ditudalako edo, hasi ohi naiz adinari buruzko gogoeta ilunetan murgiltzen. Egun hori kanpotik bozkario puntu batekin ospatzen badut ere (lehen izarren bateko jatetxeetan izaten ziren bazkariak, orain gabee-tan), barrutik harridura pixka batekin jarraitzen dut gertakaria, nik gauza asko izan nahi bainuen umetan, baina inolaz ere ez zaharra eta ez bainuen espero izatera iritsiko nintzenik ere; eta oraindik ere buruari bueltak ematen dizkiot iritsi naizen adin honetara iristeko ez ote naizen bidegurutzeren batean nahastu, ez ote naizen, Txirritak Norteko trenbidearen bertsoetan esaten zuen moduan, “guardarrayoren” batean desbideratu. Oraindik ere ametsetan urte erreskadak kentzen dizkiot neure buruari eta egiteko

garrantzitsuetan edo arriskugarrietan sartuta ibiltzen naiz. Inoiz ez dut ametsik egiten bastoiarekin parketik paseatzen nabilenik, loroari alpistea ematen edo lo-reak ureztatzen.

Horrelako gogoeta goibelekin nenbilen orain egun batzuk afalondoko zappinga praktikatzan ari nintzela (zappingaren maisu bat naiz) “La hora punta” edo gisa-ko programaren batean Jose Luis Cordeiro zientzialaria hilezkortasuna aldarrikatzen ikusi nuenean. «Zahartzaroa gaixotasun bat da», esan zuen, eta, gero, giza genomari buruzko azterketak aipatzen zituela, «30 urte barru gaindituko dugu heriotza» bota zuen; eta bizitza hirukoiztu dieten arratoi eta untxiei buruzko erreportaje batzuk eman zituzten gizakiekin ere antzeko emaitzak lortuko dituztela baieztatzen. Singularity Universityn lan egiten

duen zientzialari futurista honek halako aldarte arraro bat utzi zidan. «Zer egin behar dut nik bizitza hirukoizten badidate?», galdetzen nion neure buruari.

Burutazio horiekin nenbilela joan ziztaigun Juanba Berasategi, eta, Errenteriko tanatorioan bere emazte Itziarrek kontatu zigunez, beren gogorrean lasaiak eta goxoak izan omen ziren egun horiek, gaitzaren berri jakin orduko erabaki omen zuen nahiago zuela joatea hala moduz bizitza luzatzea baino. Denbora izan omen zuen gauzak atondu eta antolatzen, eta, sinestea zaila bada ere, guztiok nahiko genukeen moduko heriotza bat izan zuela azaldu zigun, gure aurrekoek esaten zuten bezala, konformidade handikoa. Eta pentsatu nuen badaudela, Juanbak bezalaxe, bizitzen asmatu dutelako hiltzen ere badakitenak. •

Indar bat gara gu

Saioa Iraola

Gaur zortzi Berriozarren ospatu genituen topaketen ajearekin nago oraindik. Urteetan, hila-beteetan eta egunerokoan, herri nahiz eremu askotan egiten gabil-tzan lanaren emaitza izan dira Emakume Abertzaleon VII. Topaketa Feministak.

“Berdintasunean oinarritutako Euskal Herria sortzera goaz” manifestu hartatik hamabost urte igaro dira eta, egun, gure misioan berresten gara, Euskal Herriaren burujabetza feminis-tan, alegia.

Egun hauetan, Bilgune Feminista sortzeko ausardia izan zuten hainbat emakume izan ditut gogoan; baina baita urte hauetan guztietan egunero-egunero jardun feminista garatzen, osatzen, teorizatzen, praktikatzan... aritu diren beste hainbat kide ere.

Zortedun naiz Bilguneko familiaren parte naizelako; orain dela zazpi urte pasa, Leitzan, talde feminista bat sortzeko apustua egin eta Miren ezagutu nuelako. Hura izan baitzen, hein handi batean, Bilguneko ateak zabaltu eta bestelako herri eredu bat, jendarte fe-

minista bat sortzeko borrokara lotu ninduen. Orduz geroztik, energia, denbora, irribarre, malko... asko eskaini dizkiot proiektu honi, eta ez naiz damu; kontrara, harrotasunez bizi dut.

Bizitzak eta militantziak biek bat egiten dute nire baitan, batzuetan neketsua bada ere, edo ardurek gailentzen nauten arren, horrela behar duela uste dut. Eta larunbatekoa indar dosi ikaragarria izan zen. Mila esker egunero-koan ondoan zaituztedan sorgin guztiei. •